



# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

*Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu Audio Ikastolan. Hori dela eta ikasle, guraso eta langile guztion parte hartzea sustatuko duten hainbat ekintza izango dira datozen egunotan Ikastolan bertan zein eskualdean.*



## AZAROAREN 29AN EUSKARAREN ZUHAITZA ATONTZEKO JAIA

*Azaroaren 29an, ostirala, Kriskitin Euskara Taldeak euskararen astea girtzeko helburua duen ekintza polit bat antolatu du.*

*Haur Hezkuntzako jolastokian Euskararen Zuhaitza atonduko dute Ikastolako familia guztien laguntzarekin. Zuhaitza janzteko, ikasleek gelan prestatutako hostoak etxera eramango dituzte bertan familiakoekin batera eus-*

*kararekiko konpromezu bat idazteko.*

*Azaroaren 29an Euskararen Zuhaitza atonduko dugu guztion artean Haur Hezkuntzako jolastokian 16:30etik aurrera. Horretarako, familia bakoitzak bere hostoa itsatsiko du bertan eta horren trukean parte hartzen duten guztiek txokolate beroa dastatzeko aukera izango dute.*

## ABENDUAREN 3AN ZATOZ IKASTOLARA “EUSKARAZ BIZI NAHI DUT” KAMISETAREKIN

*Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu Audio Ikastolan eta aurreko astetik etapa guztietan ekintza ugari izango ditugu horren harira.*

*Ohi bezala, egun horretan, abenduaren 3an, **koadroan zapia eta “Euskaraz bizi nahi dut”** lelodun edo euskararekin loturiko **kamiseta** jantzita etorriko gara Ikastolan egunean zehar izango diren ospakizunetan parte hartzeko.*

# ABENDUAREN 1EAN AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA OROZKON

Azken urteetan bezala, Aiaraldeko euskaltzale guztiak biltzeko jai eguna prestatu du Euskalgintza Kontseiluak Euskararen Nazioarteko egunaren bueltan. Aurtengoan, abenduaren 1ean Orozkon "Euskaraz biziko gara!" lemapean elkartuko gara Aiaraldeko ahobizi eta bellarriprest guztiok.

Egun osoko egitaraua prestatu du Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak: denontzako jolasak (ume, gazte zein helguentzat), herri bazkaria, kantaldia, erromeria...

## BAZKARIRAKO TXARTEL SALMENTA

Bazkarirako txartelak azaroaren 28a baino lehen erosi behar dira: Orozkoko Itxina eta Induma tabernetan izango dituzte salgai eta [www.sarrerakairaldean.eus](http://www.sarrerakairaldean.eus) webgunean.

Bazkariko menua tokikoa, garaikoa eta ekologikoa izango da: kuia purea, barazki edo haragi paella, postrea, edaria, kafea eta kopa; 8 eurotan haur eta soldatagabekoentzat eta 12 euro soldatadunentzat.

txartelak erosi



izena eman



AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA

# EUSKARAZ BIZIKO GARA!

BAI, WE CAN!

ABENDUAK 1, OROZKO

11:00 ONGI ETORRI EKITALDIA	15:30 HAURRENTZAKO TAILERRAK ETA JOLAS-GUNEA
11:15 "EUSKARAZ JOLASTU NAHI DUGU"	16:00 KANTALDIA: ENERITZ ETA MARINA
ALTXORRAREN BILA (3-6 URTE BITARTEKO HAURRAK)	16:30 ZINEMA EUSKARAZ HAURRENTZAT: "ELKANO, LEHEN MUNDU BIRA"
TALDEEN ARTEKO GINKANA (7-12 URTE BITARTEKO HAUR ETA NERABEAK)	16:30 BINGO MUSIKATUA
12:30 HAURRENTZAKO TAILERRAK ETA JOLAS-GUNEA	18:00 ERROMERIA: BERANDUEGI TALDEAREKIN
12:30 JOKOPOTEOA GAZTE ETA HELDUENTZAT	18:30 GAZTAINAK ETA TXOKOLATE-JANA
13:30 KOREOGRAFIA ERAKUSTALDIA	19:00 ZINEMA EUSKARAZ HELDUENTZAT: 'SOINUJOLEAREN SEMEA'
(10-16 URTE BITARTEKO NERABE ETA GAZTEAK)	
14:00 ARRATIAKO BERTSO-ESKOLAKO BERTSOLARIAK	
14:30 EKITALDIA	
14:45 HERRI BAZKARIA	

Txartelak salgai OROZKOKO INDUMAN / ITXINA TABERNAN eta [WWW.SARRERAKAIARALDEAN.EUS](http://WWW.SARRERAKAIARALDEAN.EUS) web-gunean



## JOLASETARAKO IZEN EMATEA

Goizeko jolasetan parte hartzeko izen ematea aurretik eman daiteke [www.labur.eus/orozkojolasak](http://www.labur.eus/orozkojolasak) webgunean; egunean bertan ere izena emateko mahai bat egongo da.